

AURKEPENA

Badakizu zenbat pertsonak dituzten arazoak bere ileak kizkurtze arazoak dituztelako?

Emakume askok kizkurtzearekin eta ilearen zainketarekin zailtasunak jasaten ditugu, batez ere udaberrian eta udan. Ileak eguraldi aldaketagatik geroz eta tenperatura altuagoen eraginpean egotearen eta deshidratazioaren ondorio zuzenak jasaten ditu, eta ikusi besterik ez dago nola, ilea ahuldu, lehortu, orrazteko zailago bihurtzen den, eta korapiloak desagitea ezinezkoa ez denean, ilea elektrizitate estatikoaz kargatzen den, edo kizkurtze. Kasu ohiko hau Espainiako emakume gehienetan ematen da. Infobae web-ean oinarrituta Espainiako %90 emakume baino gehiagok autoestima baxuko arazoak dituzte bere ileak sufritzen duen egoerarengatik. Arazo horiek emakumeon eguneroko bizitzan eragina dute, eta irtenbide eraginkorrak bilatzeko beharra dugu.

Kaixo, Gu Noa Garrues, Arale Mujika, Ane Guerrero eta Karmele Galdona gara. Guk NAAK taldea osatzen dugu eta Urretxu-Zumarragako ikastolatik gatoz, lehenengo batxilergoko ikasleak gara eta proiektu honetarako produktu bat eskaintzea erabaki dugu emakumeontzat, arestian aipatutako arazoari erantzuteko.

Gure inguruan kizkurtze arazoak sufritzen duten emakumeengan hainbat egoera desberdin ikusi ditugu, eta emakumeei laguntzeko pentsatu dugu produktu bat egitea. Gaur egun, ile mota guztietan ematen den arazo bat delako. Baina ilearen kizkurtzea kontrolatzeko, badaude hainbat produktu kizkurtze arazoak murrizten dituztenak, adibidez sprayak daude, baina badaude batzuk ez direnak hain eraginkorrak. Gainera, emakume batzuk ez dakite produktu horiek modu egokian erabiltzen. Gure orrazia, kizkurtzea galarazteko orrazi bat da, bere erabilera erraza izango da, orduan produktua ilean jartzeko ez dira arazoak egongo. Guk gure orrazia sortu baino lehenago, gure helburuak kontuan hartu ditugu, adibidez erabiltzeko errazagoa izango den produktu bat, gainera honek emakumeei denbora murriztuko die eta gainera produktua gure ilean botatzerako garaian, eta kizkurtze kontrolatzeko garaian.

Ideia hau, kizkurtzea eragozteko errazten duen produktu bat eskeiniko dugu. Badakigu horrelako produktu asko daudele gaur egun, baina orrazi bat jartzean, produktua ilean botatzerakoan ondo txertatuko da gure ilean. Produktua, orrazi baten barruan sartuta egongo da, horrela, ilea orraztean produktua ilean jarriko da, produktu hori ileak zehar isurituz eta kizkurtze arazoak galerratuz.